

H. Javier Lorenzo Campo
D. Segundo M^a Garin Casares

COLEGIO SAN LUIS-LA SALLE
IKASTETXEA
"HACIA EL 90 ANIVERSARIO"
"90. URTEMUGARUNTZ"
(1913-2003)



(Foto cedida por la Parroquia San Luis. Colección Local de Altza)

1. - ISTRIPU BATEKIN HASI ZEN DENA

Barrio de Herrera en 1908.
Tomada desde el pie del puente del Ferrocarril del Norte.
Observamos la Casa de Erasmo Atorrasagasti, se conserva todavía hoy y es una de las construcciones más antiguas del barrio. Aquí estaba emplazada la gasolinera que el mismo Erasmo atendía.
La Parroquia de SAN LUIS y el Colegio SAN LUIS-LA SALLE todavía no existen.
En esta ladera tuvo lugar el accidente de tráfico de la familia Zappino y del Sr. Fernández que citamos al comienzo de nuestra historia. 17-10-1907.
Al pie de este mismo puente se construiría más tarde el lavadero popular en aguas del río Txingurri.
El carro pertenece al caserío colindante de Peruene-Zahar hoy propiedad de José Luis Mendizábal. Estamos en el nivel de lo que hoy es la plaza de San Luis Gonzaga de Herrera.
(Foto facilitada por Felipe Garin Mutiloa)



1907ko urriak 17

Arratsaldeko hirurak dira, bi berebil dotore, SS-144 eta SS-251, Donostiatik Errenteriarra doaz, Mirakruzko aldapan behera, "laugarrenean eta galga librean" garaiko egunkari batek dioenez. Aurrean SS-251 doa, Araluze sendiarena, eta Cecilio Femández "chauffeur" a gidari; atzetik Zappino sendiaren SS-144, eta gidari jabea, Luis Zappino jauna. Aurrea hartu nahi dionean, bigarren automobilak lehena jotzen du "eta txoke izugarria gertatu zen, ondorioz biak irauli eta zubi ondoko zapaldatik behera amildu zirelarik. Une haietako nahasmena izugarria izan zen, konta ezinezkoa. Zaurituen aiene eta lantuak hiltzorian zeudenen hasperenekin nahasten ziren. Ondoko etxean bizi zen sendiak berehala jaso zituen zaurituak. Berria Donostian zehar zabaltzean pertsona asko izan ziren leku hartara zuzendu zirenak. Iristen lehenetakoak izan ziren zenbait sendagile: Casares anaiak, Celaya eta Barrios. Hauek, kaltetuak ikusten hasi eta hilda aurkitu zituzten Teresa Araluze andereñoa eta Luis Zappino jauna." (El Correo de Guipúzcoa)

Istripu honetan larriki zaurituta gertatu zen Teresa Barkaiztegi andrea, Luis Zappinoren emaztea. Zaurietatik sendatzean, senar zuenaren oroitzapena oheratu nahi izan zuen eta istripuaren lekuan bertan, Herreran, Luis Deunari eskainitako kapera bat eraiki zuen; kapera ondoan gela batzu egin ziren, eta bertan kapilau gisa jarri zen bizitzen Altzako koajutore zen apaiz bat.

Pasaiako portuaren arrantza eta merkatal iharduera handitzean, Herrerako auzoa jendez bete zen, eta eskola baten beharra gero, eta nabarmenagoa zen egunetik egunera. Altzako erretoreak eta Zappino sendiak Kristau Eskoletako Anaiengan (Salletarrak) jarri zuten begia. Donostian jadanik bi ikastegi zituzten hauek: Los Angeles-La Salle ikastetxea, Parte Zaharreko eskolatxoa, eta San Bernardo-La Salle Ikastetxe handia, gaurregun Jesusen Lagundiaren San Ignacio Ikastetxea dena. Azken hau Baionan izen berarekin zegoen ikastetxea alde honetara ekarri zutenean sortu zen; aldaketa hau Frantziako legeen ondorioz gertatu zen, elkarte erlijiosoen iharduna mugatzen bait zuten.

Bi aldean arteko elkarrizketari ekin ondoren, Baiona-Donostia eskualdeko anaia bisitariak, An. Lucene Adrienek, onartu egin zuen bi anaia egunero San Bernardotik Herrerara etortzea, auzoko mutikoei irakastera.

1913ko irailaren 17an sortzen da historiarako Herrerako San Luis-La Salle Ikastetxea, Altzako udalbarrutian.

2. - LEHEN GARAIAK (1913-1928)



En la pizarra aparece escrito: "Exposición Escolar. Colegio de San Luis. Herrera-Alza"
(Foto cedida por la Parroquia San Luis. Colección Local de Alza)

123 ikasle etorri ziren lehen egunean aretoen bedeinkapen handira, Meza entzun eta eginkizuna alde zurretik gozatu zituzten pastelak jatera.

San Luis-La Salle Ikastetxeko ikasle izandakoen erregistro zahar batean aurkitzen dugu. zerrendari hasiera ematen dion izena: Tiburcio Beretarbide Aristizabal, Molinao 13an bizi zena.

Garai honetan Anaiak ez ziren auzoan bizi, egunero harzen zuten tranbia Ategorrietan beren lantokira joateko, izan ere San Bernardo-La Salle Ikastetxeko elkartekoak bait ziren. Urteotan anaia frantziar batek, zuzendari zenak, eta espainiar batek osatu zuten irakaslegoa. Lehen biak Léonides Jean anaia, auzoan Hermano Juan izenez ezaguna, eta José Ignacio anaia izan ziren.

Nolakoa zen eskola? Eraikuntzari dagokionez bi gela zituen, kaperaren azpian katekesi eta bileretarako zeuden aretoetatik moldatutakoak; ariera Anaiak leku askotan zuzentzen zituzten eskola herritarren arabera: 1. ikasgela hazitxoentzat, zuzendariaren esku, eta 2. ikasgela beste anaiaren esku. Hirugarren anaia bat etortzean sukaldari lanak egingo ditu eta 2. ikasgelako atzeratuei lagunduko die; isiltasuna eta lan giroa; irakaskuntza irakurketa, idazketa, matematika, marrazketa eta katekimari lotua batipat, une honi garrantzi berezia ematen zitzaizalarik; goizeko gogoetak eta otoitzaldiek giro erlijioso sortzen zuten eskolan; ahal zen neurrian, meza egunero edo sarri,



Fotografía de fin de curso, año 1933. (Foto cedida por Pepita Berregui. Colección Local de Altza). En la foto: Arturo Abancens, Aranburu, José Luis Azpillaga, Valentín Extremo, Federico Goitia, Miguel Landa, Elías Lasa, Lasa, Mikelete, Santa Marina, Josetxo Sarriegi, Urraca, Manolo Valle.

igandeetan eskola osorik joaten zen Parrokiako Mezara. Heziketa modu hark lan munduan laster sartzeko prestatu nahi zituen ikasleak eta horrekin batera kristau nortasun sendoa ezarri nahi zien.

Urte haietan ez zen falta izan eskola utzi ondorengo arretarik mutilentzat. 1922an seroraren gelak, ikasgelen azpian zeudenak, gela eder bihurtu ziren, lanaren ondoren eta jai egunetan gazteen biltoki izan zitezten, jostatze-ko eta hezitzeko helburuz. Kultur eta erlijio ekintzak burutzen ziren eta jostailu eta jokoak zeuden.

Ikastetxea sendotuz joan zen, baina ez zen falta izan zailtasun eta arazorik. 1919-20 ikasturtean gatazka larria gertatuko da. 1918 urtean Altzako Udalaren subentzio bati eskerrak eskola dohako bihurtu zen erabat; bizimodu gero eta garestiago eta 1919ko Abenduan Anaia Zuzendariak dirutzaren gehikuntza eskatu zuen; udalaren ezetzaren aurrean, 2. ikasgela itxi beharra egon zen, eta ondorioz eztabaida zabaldu zen, udalbatzarre beroa ere egin zelarik. Guraso talde batek hartu zuen parte eskolaren sostengurako dirutza bat ematea aginduz, eta baretu zituen animoak.

1928ko irailean, Frantzia giro lasaiagoa zela eta San Bernardo Ikastetxea Baionara aldatzeko erabakia hartu zen. Donostiako eraikuntza Josulagunek erosi zuten. Herrerako eskolari eutsi ahal izateko komunitate independente bat sortzea erabaki zen.

3. - URTE NAHASIETAKO IBILBIDEA (1928-1940)

"Zeruko atea" villak, Altzako hegaletan, maizter berriak ezagutuko ditu: auzoan geratuko diren hiru anaiak. Lehen elkarte Junian Alberto (José Alberto Larzábal), zuzendaria, Lucio Ramón (Bernardo Larrañaga) eta Justino Amós (Auxencio Palomar) Anaiek osatuko dute. Izen-deiturek adierazten digutenez, aldaketa garrantzitsua gertatu da, anaia zuzendaria ez da frantsesa jadanik, eta une horretatik aurrera anaia guztiak espainiar naziotasunezkoak izango dira.

1929ko maiatzaren 24an hil zen Teresa Barkaiztegi andrea, ikastetxearen sortzailea. Haren semeak, Federico Zappino jaunak, hartu zuen bere gain ikastetxeari laguntzeko lana, amak hain gogotsu burututakoa.

Ez dira garai errazak gure gizartearen bizitzarako eta San Luis-La Salle Ikastetxea ez zen gizarte zurrunbiloetatik kanpo geratu. 1930ean ia ikastetxea ixtea erakarri zuen zer bat gertatu zen. Diru beharrak handitu egin dira, Udalak, gizarte egoera zaila dela eta, ez du subentzioa gehitzeaz ezer jakin nahi, eta anaiak ikasturtea bukatzean aldegitea erabakitzen dute. Auzotarrek berria jakitean mobilizazioak hasi ziren, sinadurak bildu eta Udala presionatu

zuten, eta azkenean honek subentzioa gehitzea, erabaki; gurasoak, beren aldetik, zerbait gehitzekotan geratu ziren. Krisiak munta handiko ondorioa du hurrengo urteetarako: egoera zailei aurre egingo dien batzordea eratzeko erabakia hartzen da; honela sortu zen, nortasun juridikoz, "Asociación Católica de Padres de Familia" delakoa, handik ia berrogeitamar urtera ikas-tetxearen jabegoa eta titulartasuna bereganatuko dituena.

1933 urteak berekin ekarri zuen Errepublikaren legeak indarrean jartzea: Udalak subentzioa kendu zuen eta Anaiek ezin izan zuten aurrera jarraitu. Erantzuna azkarra izan zen: Guraso Elkarteak bere gain hartu zituen ikas-tetxearen gastu guztiak eta Anaiek sotana utzi eta dotore agertu ziren trajez eta gorbataz jantzita; era honetan, An. Leopondo Adrián, zuzendaria, Ventura Aranguren jaunak ordezkatu zuen, An. Juventin Casimir Casimiro Aramburu jaunak, eta An. Liberio Ignacio Eleuterio Aramburu jaunak. Esaera zaharrak dioena erabil daiteke hemen: "zakur berak lepoko desberdinez".

Anaiek Herrera "ofizialki" utzi egiten zutenez, herriak omenaldi adeitsua egin nahi izan zien. 1933ko uztailaren 30ean Ikasle Ohi eta lagun talde handi bat bildu zen Parrokian Meza Santua entzuteko, ikasle ohiak ziren apaizek emana; oroitzapenezko album bat eman zitzaien eta lagunarteko bazkaria egin zen Altzako "Martillun Jatetxe ospetsuan".

Arazoek ez zuten geldiarazi eskolaren eraberritzea. 1931ean ikasgela berriak eraikitzeari ekin zitzaion, lehengoak ez bait ziren aski, eta 1934an Anaien elkarte egoitzaz aldatu zen, "Villa Concheshi"ra, Eliza ondoan zegoen txaletera, Zappino jaunarena hain zuzen. Aipatzekoa da Guraso Elkartearen Batzordeak bi auziotan izan zuen egiteko garrantzitsua, agertu ziren zailtasun guztiak gaindituz.

Urteotan aldatu egingo da jabegoaren legezko egoera. Zappino sendiak 1918an Gasteizko Gotzaitegiari utzia zion jabego osoa. 1932an, Gotzai jaunaren baimenez, Federico Zappino jaunak bereizi egin zituen eskolak uzte honetatik eta Patronato independentea eratu zuen; hauxe izango zen jabea 1972an desjabetza eta suntsiketa gertatu arte.

Gerrate Zibilak ez zuen ondorio larriegirik ekarri eskolara, uztailaren 22tik irailaren 20rarte bakarrik egon zen itxita, hau da, oporraldian. Lehen egun horretan Trintxerpeko CNTren talde bat agertu zen "Villa Concheshi"ra, etxeaz jabetu eta anaiak atxilotu asmoz; talde nazionalisten erantzuna berehalakoa izan zen, Anaien askatasuna eta egoitzaren zaingoa lortuz. Zuhurtziak hala eskaturik, Anaiak sakabanatu egin ziren, Anaia Zuzendariak irailaren 15ean Herrerara itzultzea eta etxea berreskuratzea lortu zuen. Irailaren 21ean berriro ekin zitzaion ikasketei Herrerakoak bertakoak ziren Anaiez baliatuz, gerra zela eta beren sendiekin bait zeuden.


1938an irakasle bat hil zen San Luis-La Sallen, Casimiro Aramburu anaia, gaixoaldi labur baten ondoren. Elizakoen ondoren Altzako kanposantuan eman zioten lurra, eta han daude haren hondarrak. 1977an era berean lurperatu zituzten kanposantu hartantxe Altzako seme zen Anaia bat, An. Baltasar Otaegi. Lurrarekin bat eginik, sustrai sendagoz batzen dira Anaiak eta Ikastetxea zerbitzatzen duten lekuarekin.



Año 1933. Homenaje y simulacro de despedida de los Hnos. de La Salle del Colegio SAN LUIS-LA SALLE. Tiempos republicanos en los que se les obligó a desprenderse de los hábitos religiosos. Los padres y los antiguos alumnos organizan un homenaje y despedida de aquellos que al día siguiente cambiando de nombre y vestimenta continuarán regentando la misma escuela de SAN LUIS-LA SALLE.

Citamos a continuación algunos de los nombres de los que aparecen en la fotografía de dicho homenaje-despedida; perdonarán las ausencias de citación ya que los pocos supervivientes de entonces no llegan a identificarlos o recordar a todos: H. Leopoldo Aranguren, Director; D. Zacarías Oyarbide, Párroco de Herrera; H. Liberio; H. Pedro; D. Pablo Landa, Presidente; D. Bibiano Elizalde; D. Félix Amiano, Párroco de Altza; D. José M^a Múgica, Coadjutor de Altza; D. José Antonio Lasa; D. Bibiano Elizalde; D. Fermín Ramón; Sr. Zabaleta; Sr. Machain; Sr. Lamarca; D. Ignacio Alquiza; Sr. Isasa; D. Francisco Lasa; Hnos. Aniceto y Juan Zugasti, Sacerdotes; Sr. Ibarbia; Sr. Echarri; Sr. Lapazarán; D. Erasmo Atorrasagasti; D. Fidel Tolaretxipi; D. José Peña; D. José Salaberria; D. Francisco Landa; D. Antonio Elósegui; D. Tomás Calparsoro; D. José Alquiza; D. Elías Garmendia; D. Antonio Cortajarena; D. Dionisio Arrieta; D. Pablo Garín; D. Carlos Asumendi; Sr. Beratarbide; D. Andrés Elósegui; D. Dionisio Elizalde; D. José Casares; D. José Miguel Landa (Esta fotografía es facilitada por D. José Miguel Landa); D. Ángel Sarasola; D. Ambrosio Zurutuza; D. Juan Casares, Sacerdote; D. Rufino Roteta; D. José Lasa; D. José Luis Pérez (Bizkai); D. Eugenio Etxeberria (Txistulari); D. Ignacio Zubizarreta (Tamborrero); D. Sebastián Yeroibi; D. Victoriano Roteta; D. Anselmo Berra; Sr. Gurruchaga; D. Francisco Nabarlaz; D. Victoriano Gurruchaga; D. Manuel Arrillaga; D. Vicente Etxeberria; D. Santiago Asumendi; D. Antonio Múgica.

4. - GIZARTE ALDAKORRAREKIN BATERA ALDATUZ (1940-1972)



Parroquia de SAN LUIS GONZAGA de Herrera, dependencias parroquiales y Colegio SAN LUIS-LA SALLE (1970).

Villa Concheshi, propiedad de la familia Zappino y residencia de los Hermanos de LA SALLE que ejercen la Dirección del Colegio SAN LUIS-LA SALLE.

(Foto facilitada por Felipe Garin Mutiloa)

Gure gizartea urte hauetan aztertuz gero, ezer gertatzen ez dela ematen duen aldi luze bat ikusiko dugu, eta ekonomi, gizarte, politika eta erlijio bilakaerak gero eta erritmo bizkorragoa hartzen duen beste aldi bat. San Luis-La Sallen historiak dinamika berbera jarraitzen duela dirudi.

1940tik 1958rarte ez dirudi ezer aipagarrikerik gertatu zenik, baldin eta "ezer ez" dela esaterik balego eguneroko zeregin geldia, hezkuntza eginkizun isila, ezagumendu hutsak transmititu nahi ez baina balioek gidatutako gizakia moldatu nahi dituelako pertsonak eratzen dituen zeregin hori. San Luis-La Salle Oinarrizko Hezkuntzako Ikastetxea da, bat besteen artean, gure lurreko jende xehea hezi eta bizitzan bere asmoak bete ditzan ari dena. Gaur zuzendaritza postuetatik edota enpresa txikietatik gure ekonomi eta kultur bizitza bizkortzen duten gizon asko, era honetako eskoletako ikasle izan ziren haur eta gaztetan. Baina garaiak gero eta konplexuago bihurtu ziren, gizarteak gero eta prestaketa handiagoa eskatzen zuen. Errealitateari antzeman eta urratsak ematen jakitea izan zen 1960.aren inguruko urteetan Ikastetxea bideratu zutenen azertu handienetako bat.

1958 garrantzitsua da San Luis-La Sallen historian. Ekonomi aldaketa adierazgarria gertatuko da, indarrean dagoen legeriaren babesean eskatu eta lortu egiten da Peñaforida Institutuaren 1 zkidun Atal Filial bihurtzea. Aldaketari eskerrak Herrerako haurrek ofizialki eta dohan ikasi ahal izango dute Batxilergo Elementalari dagozkion ikasturteak, Gipuzkoan lehen ikastetgia izan zen Atal Filial mailara iristen, eta ez da dudarik askori beste lan-irteera batzu eskaini eta goimailako beste ikasketetarako bidea ireki diela. Testuinguru honetan planteiatu zen ikastetxea lanbide hezkuntzazko ikasketen bidez handitzea, eta izan zen harremanik inguruetako enpresekin ere, baina egitasmoa ez zen gorpuztu.

Aipatzekoa da ikasturte honetan irakaslego sekularra hasi zela lanean. 45 urtez ikasketa guztiak Anaien esku egon ondoren, Batxiller Elementalak zenbait gaietan sekularrek parte hartzea eskatzen du, baina oinarrizko mailan ere irakasle berria sartzen da, Vicente Ayesa jauna, oraindik ere Ikastetxean irakasle diharduena; bera aipatzean gogora ekarri nahi ditugu ordutik aurrera Ikastetxearen hezkuntz betebeharrari ilusioz eta bete-betean ekingo dioten irakasle sekular guztiak.

Eta denboraren abiada azkarrak 1963rarte garamatza. San Luis-La Sallak 50 urte betetzen zituen. Abagaduneak hainbeste eskatzen zuela eta handiriko ospatu zen. Donostiako Udalak ere hartu zuen parte, Ikastetxeari harro erakuts ditzakeen bi bereizgarri emanez: "Corbata de la Ciudad de San Sebastián" eta "Medalla al Mérito de la Enseñanza" direlakoak. Lehena Udaletxean maiatzaren 11an burututako ekitaldi handi batean entregatu zen, eta gaurregun Haurren Danborradan parte hartzen duen ikastetxeko konpainiaren buru egiten duen ikurrinak eraman ohi du. Maiatzaren 12an izan ziren ospakizun nagusiak: Meza Santua Parrokian, sortzaile izan zen Teresa Barkaiztegi andrearen omenezko oroitarriaren desestalketa Ikastetxearen fatxadan, eta lagunarteko bazkaria Orly Hotelean. 50 urteak zirela eta Ikasle Ohien bilerarako deialdia egin zen, eta erantzuna hain zabala izanenez San Luis Ikastetxeko Ikasle Ohien Elkarteak sortzeko erabakia hartu zen.

Garaiko kronikak berrirakurriz iharduera dexentea nabari da alor erlijiosoan, eskolako ohizko iharduerei ikasle asko biltzen zituzten talde eta mugimenduen sarrera gehitu behar zaie: Congregación del Niño Jesús, Legión de María, Unión de Catequistas... Gaur ezer askorik esaten ez diguten izenak dira, baina sasoi hartan horiei eskerrak haur eta gazte askok kristaubidean aurrera egin ahal izan zuten.

Aurrera begiratzeko urteak dira, instalakuntza berriekin amets egiteko urteak. Egia esan, San Luis-La Salle zaharra txiki ari zen geratzen, ez zuen patiorik (Herrerako San Luis Gonzaga Enparantza maitagarri hura!) eta ikas-

gelek ez zuten behar hainbateko baldintzarik betetzen. Zenbait eremuren egokitasuna begiratu zen (aldi batez gaurregun Bidebietako Institutuak hartzen duen lekua egon zen gogoetan), are planak ere egin ziren maila akademikoak zabaltzeko: 1966an serio hitzegiten zen ikastetxe berrian goimailako batxilergoa ezartzeaz... baina denbora aurrera eta ezer zehatzik burutu ez. Pasaia San Pedroko Margarita Pérez Ruiz de Munain andrearen emari batek gaurregungo lurrak erosi ahal izatea ekarri zuen, eta lehen lurebakia egitea... La Paz eta Trintxerpeko mutikoek futbol-zelai gisa erabilia zenbait urtez.

1968tik aurrera ikastegiaren etorkizunak zegoen kezka eta ondoriozko gestioak gehituz joan ziren. Bariantearen lanak gorpuztuz doaz eta Parrokiaren eta Ikastetxearen desjabetzea gero eta hurbilago ageri da. Eraikitze baimenak ez dira iristen eta finantzaketa arazo larri gisa ikusten da hau, desjabetzeagatik dirutza ez da oso handia eta are tirabirak ere sortzen dira Parrokiaren eta Ikastetxearen artean dirutza horren banaketa dela eta. Patronatoaren eta Udalaren artean bilerak eta bilerak egiten dira, baina irtenbiderik ageri ez.

Bitartean irakaskuntza aurrera doa bere martxan. 1970 urtea irakaskuntzaren erreforma berri baten hasiera izango da, Batxilergo Elementala desagertu egingo da eta O.H.O. sortuko; aldaketak ekonomi arazo berriak ekarri zituen, une hartan O.H.O. ez bait zegoen subentzionatuta, eta kuotak jaso egin behar izan ziren.

Gizarte eta politika egoera larria da, giroan nabarmentzen zenez. Eta sosegurik gabeko egoera hartan iristen da 1972 urtea: abuztua da pikotxak ia hirurogei urteko eskola-bizitzari amaia eman diezaion jarritako data, eta artean irtenbiderik ageri ez. Beldurra zegoen zinez Ikastegia desagertuko ote zen. Azkenean, emergentziazko irtenbidea: Udalak bere gain hartzen du "Etxaide-Borda" villa egokitu, eta uztea, Mirakruzko gainean.

Uztailaren azken egunak lan handikoak izan ziren, Ikastetxea hustu beharra zegoen. Material guztia Loiolako La Salle Ikastetxean gorde zen behin behingoz. Makinek laster birrindu zituzten horma zaharrak. San Luisek Herrerako plazako leku maitagarria utzi eta bere abialdiari ekin zion.

5. - HERRERAKO SAN LUIS-LA SALLEtik MENDIOLABEKO SAN LUIS-LA SALLEra (1972-...)

Zeregin handiko bi hilabetek villa handi bat ikastegi bihurtu zuten, bost anaiarentzako etxebizitza barne; hiru prefabrikatuak osatzen zituzten instalakuntzak. Behin behineko zerbait bizkor egitea zen asmoa, bi urtetarako edo, baina zailtasunak bat bestearen atzetik zetozen eta "Etxaide-Borda"koa bost urtetako itxoinaldi luzea izan zen. Denboraldi horretan desagertu zen Atal Filiala eta ikastetxea O.H.O.ko zortzi gela edukitzera pasatu zen.



1972. Derribo de la Parroquia SAN LUIS GONZAGA de Herrera y del Colegio SAN LUIS-LA SALLE de Herrera. (Foto facilitada por Felipe Garin Mutiloa)

Urteotan An. Manuel Cisneros zuzendariaren eta Guraso Elkartearen kemenak bakarrik mamitu zituen asmoak, eginkizunak akuilatuta. Udalaren baimena lortu ondoren zenbait kreditu negoziatu ziren eta San Luis-La Salle berriaren lanak, "Guardaplata" edo "Mendiolabe"ko lurretan, gauzatzen hasi ziren.

1977ko udak atzera ere aldaketan harat-honata erakarri zuen, baina oraingoan ilusioa handiagoa zen. Lan handiaren ondoren ikasturtea San Luis-La Salle berrian hasi ahal izan zen. Berrikuntza handiekin hasi ere: ikastetxea 8 gela izatetik 16 izatera pasatzen da, eta mixto bihurtzen; irakaslegoa zabaldu egiten da zenbait moja eta irakasle sekularrekin. Anaientzat inaugurazio honek Donostiako beste ikastetxe ospetsu batetik alde egitea esan nahi du: Los Angeles-La Salle Ikastetxetik hain zuzen; irakaslegoaren zati bat eta zenbait ikasle etortzen dira San Luis-La Sallera. Era berean, neska ikasleen zati bat Carmelitas de la Caridad (Vedrunas) delako mojek Ategorrietan itxi berri duten ikastetxetik datoz.

1978ko maiatza izan zen aukeratutako unea inaugurazioaren festa ofizialak ospatzeko. Poz handia dago ikastegi herritar batek irakaskuntza lanean jarraitu ahal duelako. Bistakoa da dena ez zegoela egina, diru arazoa astuna

zen oraindik eta buruhauste bat baino gehiago ekarriko zuen. Urteak iragan behar izan dira etorkizuna argiago ikusi ahal izateko.

Urteotan San Luis-La Sallek gehitu egin ditu bere irakaskuntza mailak, baina ez goitik, egitasmo zaharren arabera, txikietatik baizik, Haur Hezkuntzatik. Lehen uneetan maila hau Bidebieta auzoko areto batzutan kokatzen da, pixkanaka Ikastetxearen geletara igotzeko.

Lege aldetik oso aldaketa esanguratsua gertatu da: 1972tik aurrera eta hainbat unetan San Luis-La Salle Eskoletako Patronatoak eta Eskola Kristauetako Anaiak, Guraso Elkarteari utzi zioten ikastetxearen jabegoa eta titulartasuna, eta argibide juridikoa 1979an burutu zen. Aurrez Elkarteak eta Anaiak hitzarmena izenpetu zuten. Honen arabera Anaiak ikastetxearen antolamenduaz eta zuzendaritzaz arduratuko ziren.

Ikastetxeak azken urteotan jarraitu duen pedagogi bidearen azterketa laburra eginez gero, bi alderdi dira gehien jorratuak: elebitasunaren ezarpen prozesua, euskarazko irakaskuntza bultzatuz, eta zailtasunak dituzten ikasleei eskaintako arreta berezia. Neskamutil hauei laguntzeko bi laguntza-gela izateak adierazten du gaiari zenbaterainoko arretaz heldu zaion. Behar bezalako instalakuntzak izateari eskerrak, bestalde, kirol ekintzak ugaltu eta kanpoko ekitaldiak indartu egin dira.

Eta hemendik aurrera iragan-orainek etorkizunari egiten diote leku. Izan ere, erronka berriei antzematen zaie, baina historia hau irakurrita, San Luis-La Salle horiei aurre egiteko gauza izango dela pentsatu, beharko dugu. Bere 90 edo 100 urteko bizitza ospa dezagunean izango da balantze egiteko ordua. XXI menderanzko bide irekita dago.

6.- HISTORIA BERRIZ IRAKURTZEN

Ibilbide apala egin dugu San Luis Ikastetxearen bizitzaren 75 urteetan zehar. Historia hau beste era batera irakurtzen ausartzen gara, orainean, izan ere 1988-89ko San Luis-La Salle izandakoaren emaitza bait da, bizi izandako urte guzti horiena.

San Luis-La Salle herritar eskola da. Ez gaude ikastetxe handi baten historiaren aurrean, instalakuntza izugarriak eta milaka ikasle dituen, auzo-eskola baten aurrean gaude, denek joan ahal izan duten ikastetxe baten aurrean, norberarena balitz bezala maite eta estimatua izan den zerbaiten aurrean; aribide ezaguna eta hurbila izan du beti. San Luis-La Salle ingurune jakin batean txertatuta egon da, horren kultur beharrezanez erantzuten saiatu da, ekimenez iharduten, behar izan denean aldatzen eta bilakatzen. Merezi du estilo honek aurrerakoan ere jarrai dezan.

San Luis-La Salle salletar eskola da. "Salletar eskola" kalifikatibo hau erabiltzean ez dugu adiera zabalean erabili nahi, oso ñabardura zehatzez baizik: La Salleko Anaiak dira bere historian zehar ikastetxea moldatu eta eratu dutenak, izakera eman diotenak.

Anaiak ez zuten sortu San Luis-La Salle, besteek deituak izan ziren; Anaiak inoiz ez ziren San Luis-La Salleren jabe izan, eta une jakin batean ikastetxearen irakaskuntza titularrak izateari ere utzi egin zioten. Guraso Elkarteak, Hitzarmena sinatzean, egoera hau etorkizunekoa izan zedin nahi izan zuen. Ohorea eta erronka da Anaientzat.

Eta Anaien presentzia azpimarratzean San Luis-La Salletik pasa diren guztiak ekarri nahi genituzke gogora. Ez ditugu denak aipatuko, bakar bat gogoratuko dugu, Anaia Pedro, Herreran hogeitaz egon ondoren Ikastetxean luzean egon den Anaia baita; eta baita ikastetxearen zuzendaritzan, ez beti errazaz, arduratu behar izan duten guztiak ere:

1.	An. Léonides Jean.....	1913-1920
2.	An. Lézin Claude.....	1920-1928
3.	An. Junian Alberto (José Alberto Larzábal).....	1928-1929
4.	An. Julián Zenobio (Julián Gurrutxaga).....	1929-1931
5.	An. Leopoldo Adrián (Ventura Aranguren).....	1931-1937
6.	An. Julián Zenobio (Julián Gurrutxaga).....	1937-1943
7.	An. Juan María (Juan Oiarbide).....	1943-1948
8.	An. José Ignacio (José Kruz Igiñiz).....	1948-1957
9.	An. Demetrio (Facundo De la Presa).....	1957-1962
10.	An. Ildefonso León (Luis P. Garitano).....	1962-1964
11.	An. Justino Ignacio (Ignacio Biain).....	1964-1966
12.	An. Luis Gustavo (Luis Arzak).....	1966-1972
13.	An. Manuel Cisneros.....	1972-1979
14.	An. Félix Ezama.....	1979-1983
15.	An. Miguel Esnaola.....	1983-1987
16.	An. Sabino Ezeiza.....	1987-1993
17.	An. Ignacio Acha.....	1993-1996
18.	An. Félix Ezama.....	1996-1999
19.	D. Segundo M ^a Garin.....	1999- ...

San Luis kristau eskola da.. Urte askotan San Luis-La Sallen ez zen idatzizko Ideariunik ez Ikastetxe Egitasmorik izan, baina egitez beti azaldu zen eta bizi izan zen "kristau eskola" gisa, eta esango nuke bere historian zehar hauxe izan duela loriarik handiena. San Luis-La Salle ez da izan kristau eskola bakarrik erlijio aribidea eta erlijiozko hezkuntza presente zeudelako, baita bertan ebanjelioaren balioak bizitzen saiatzen zirelako; balio horiek beren bizitzen ardatz nagusia izan zedin gonbidatzen zitzaizen ikasleei. Askok, askatasuna erabiliz, beste bide batzu jarraitu dituzte, baina seguru esan liteke eskolaz duten oroitzapena, egin dezaketenek epaiak kanpo, kristau eskolari lotuta doala. San Luis-La Salletik urteetan eta urteetan irten diren hainbat eta hainbat apaiz, erlijioso eta erlijiosa bokazio, berorien hezkuntza blaitu duen joera erlijiosoaren seinale argia dira.

Urteen buruan San Luis-La Salle kristau eskola, salletar eta herritar gisa tajutu da. Hala bedi aurrerakoan ere.

7.- XXI. MENDEAN MURGILDURIK, 90. URTEMUGARUNTZ, 2003. URTEA

Bidea egitean egiten da. Demokrazia oraindik eskuratu gabe, Hezkuntza Zentruak berreskuratu eta berrindartu nahi dute geure arbasoen hizkuntza, Euskara maitea. San Luis-La Salle, Euskalherriko beste lasalletar Ikastetxeekin batera, presente egiten dute beraien ikasgeletan herri honen hizkuntza, metodologi propioa erabiliz non eta "EUSKARA MAILAKA" izenez Mensajero Argitaletxeak argitaratu dituela. 1972-1973 aurkitzen gara.

20 urte luzeak eta eztabaidatsu behar izan dira euskal "Eredu D" gauzatzeko gugan. 1993tik honuntz, bai Haur Hezkuntzan eta Lehen Mailako Hezkuntzan ere hauxe eskeintzen dugu.

1996. urtea beste erronka bat dakartzagu. Oraingo honetan teknologi berriak dira albiste. Internet eta Multimedia gurekin ere. 17 ordenagailuak sarean loturik eta Internetera ateratzeko ahalbidearekin, beraien jartzen gaituzte mundu zabaleko harremanetan, hau da, informazio eta kulturarekin bat eginik.

Gure haur eta gazte adiskidetzen dira ordenagailu eta tekladoarekin. Mekanografia, testuen tratuera, datu baseak, kalkulo orriak, posta-elektronikoa eta sareak eskeintzen digun hoberena, geure ezaguera eta erlazioak areagotzeko.

2000. urteak beste gaurkotze pedagogikoa dakar. Multitailerren eraikuntza. DBHko ikasleak arreta berezia jasotzen dute, beraien behar eta desioen arabera, beti, hau bai, gurasoen baimenaz kontutan izanik. Esku lan, informatika, sukaldea, ingurune ezaguera eta eskola baratza, eskeiniko diete hain-

beste alternatibak sistema itxi eta derrigorrezko honi, ikasleen aniztasunak kontutan izaten ez duen sistemak.

San Luis-La Sallek 20 Ikasgelak onartuak ditu. Bere Hezkuntza eremua bi urtetik, hamasei urterarte eskeintzen du eta hogeitaurterarte LA SALLE zentruetan edo LA SALLE sarean.

Guraso Elkarte Katolikoak eta bere Batzar Nagusiak bermatzen dute bere funtzionamentu egokia, baita ere bere etorkizuna, gestio eta Titularitatearen bitartez. Eskola Kontseiluak izendatzen du Ikastetxeko Zuzendaria, non eta Anaia Ikuslariak proposatutakoa. Kargu honetarako bai seglarrak eta bai Anaiak proposatuak izan daitezke.

Ikasle Ohien Elkarteak: lan on baten seinalea da eta etorkizun baten erronka. Belaunaldiz belaunadi zaintzen dugu gaurkoa, etorkizuna hobeagotzeko eta beti ipar batekin. San Luis-La Sallera gerturatzen diren guztiok aurki dezaten argia bere bidean, jakinduria bere eginkizunetan, eta pakea haien harremanetan, kapazitatea auzo, herri, eta mundu hobeagoa eraikitzeko.

8.- 2003. URTEA ANTOLATUZ

Lerro hauetara hurbiltzen zireten guztioi, gure 90. urtebetzera gonbidatzen zaituztegu. Gurekin hainbeste urteetan harremanak izan dituzuenok, bai antolakuntzara eta gure festara etor zaitezte, San Luis-La Salle Ikastetxeak deitzen zaituzte.

Eskerrik asko 90 urte hauetan San Luis-La Salle ahalbidetu egin dituzuen guztioi, errealitate hau gure inguruaren zerbitzuan: Herrera, Larratxo, Bidebieta, Intxaurren, Altza eta Pasaian.

Ekainak, 2001

Desde el barrio de Bidebieta y entre las dos grandes torres, bajo el caserío de Mendiola el enclave del Colegio SAN LUIS-LA SALLE Ikastetxea.



1. -TODO EMPEZÓ CON UN ACCIDENTE

17 de octubre de 1907

Son las tres de la tarde; dos lujosos automóviles SS-144 y SS-251 se dirigen desde San Sebastián a Rentería, bajan la cuesta del Alto de Miracruz "en cuarta y a freno libre", según señala un periódico de la época. En primer lugar va el SS-251, propiedad de la familia Araluce; conduce el "chauffeur" Cecilio Fernández. Le sigue el SS-144, de la familia Zappino; al volante, su propietario, Don Luis Zappino. Al intentar adelantar, el segundo coche alcanza al primero, "produciendo un choque formidable, que dio por resultado el vuelco de los dos, que saltaron por un ribazo próximo al puente, cayendo al barranco. La confusión en aquellos momentos fue espantosa, indescriptible. Los ayes y lamentos de los heridos se confundían con los suspiros entrecortados de los que agonizaban. La familia que habita en la casa próxima al lugar del suceso recogió inmediatamente a los heridos y los trasladó a las habitaciones. Al correr la noticia por San Sebastián, fueron muchísimas las personas que se dirigieron hacia aquel lugar. De los primeros en llegar fueron los doctores Sres. Casares (hermanos), Celaya y Barrios. Dichos facultativos, al observar a las víctimas, encontraron ya cadáveres a la señorita Teresa Araluce y a Don Luis Zappino." (*El Correo de Guipúzcoa.*)

En este accidente resultó herida de gravedad Doña Teresa Barcaítegui, esposa de Don Luis Zappino. Al recuperarse de sus heridas, quiso honrar la memoria de su esposo y construyó en el lugar del accidente, La Herrera, una capilla bajo la advocación de San Luis; junto a la capilla se edificaron unas habitaciones, que fueron ocupadas por un sacerdote, coadjutor de Altza, en calidad de Capellán.

